ZIGANDALEIHOTIK BLOGAN PUBLIKATU

Blog bat bizirik mantentzeko publikazioak behar ditu, eta horretarako zalantzarik gabe, argi izan beharko ditugu eman beharreko pausoak. Dokumentu honetan ahalik eta modu errezena erabiliz, harpidetzeko eta publikatzeko prozedurak argitzen saiatuko naiz.

1- Kudeatzaileak, kasu honetan nik, blog bat sortu zuen horretarako dauden plataformen artean (Blogger, Nireblog, Blogsome, Blogari ...) bat hautatuz, gure kasuan Blogger zerbitzua erabili nuen.

2- Gonbiteak bidaltzen dira partaide egin nahi ditugun pertsonak harpidetzeko asmotan, zuen posta elektronikoaren helbidea erabiltzen da horretarako. Bertan, dagoen estekan klik egin eta pausoak jarraitu behar dira, ez da batere zaila, gure kasuan googleren zerbitzu bat denez google kontu bat sortzea eskatzen dizue, horretarako zuen posta helbidea eta pasahitza bitan sartzea eskatzen da. Ez ahaztu irudi gisan agertzen diren zenbaki eta letrak dagokion lekuan sartu behar direla ere.

3- Hurrengo pausoa zuen posta berriz ireki, eta konfirmatu (beste esteka baten bitartez) zuen kontua modu egokian sortu egin dela, eta listo. (Saiatuko naiz ahalik eta azkarren falta direnei igortzen). Jadanik zuetariko askok jaso zenuten gonbidapena eta harpidetu ere.

4- Bazkidetu garenean nola hasi?

Ondoko estekan klik egin

http://zigandaleihotik.blogspot.com/ “Acceder” sakatu



“Acceder” botoia sakatu ondoren gure datuak sartuko ditugu.

1.- Zuen posta elektroniko helbidea idatzi 1 2
2.- Pasahitza idatzi



3.- "Acceder" botoia sakatu

Hurrengo pausoak blogaren barruan emango ditugu. "Panel" delakoan, harpidetu edo zuek sortu egin dituzuen blogen izenburuak ikusiko dituzue, gure kasuan "zigandaleihotik" bloga kudeatuko dugu. Irudian ikusten duzuten panela kudeatzailearena da, beraz, sarrera berria, sarrerak kudeatu, ezarpenak (configuración), eta diseinua agertzen dira. Zuen kasuan "nueva entrada" eta zuek publikatutakoen kudeatzailea agertuko zaizue.
Sarrera berri bat egingo dugu.



Nueva entrada sakatu

Momentu honetan, testuak sartuko ditugu, bertan hizki mota, neurria, lerrokatzeak... oso erraza da. Ziurtatu "redactar" eremuan zaudetela, momentuz html ahaztu.



Irudiak igotzeko prozedurarekin hasiko gara, kontutan eduki ez dela komeni argazki astunak sartzea, photoshop ikastaroa egin dutenei laguntza eskatu eta listo.

Botoi hau sakatu

Normalean, irudia gure ordenagailuan izango dugunez, Examinar botoian klik egin eta hautatu erabili nahi duzun artxiboa. Interneten balego, URL lekuan bere esteka idatzi.

Hona hemen igo nahi dudan irudia, adibide gisan Oinez 07 logotipoa. Bere gainean klik bikoitza egingo dut.



Erdian agertzea nahi dut, eta neurri ertain batekin.

Subir imagen sakatu
Argazkia igo da, “Finalizado sakatu”



Hona hemen emaitza, gustokoa? “Publicar entrada” sakatu. Gerorako gorde nahi duzula? Orduan “guardar ahora” sakatu eta beste sesio batean editatzeko prest.



Publikatuko dut, ea zer gertatzen den. (Gero kenduko dut, lasai)

Artikulua argitaratu da.

Hauxe izan da zuek erabili beharreko modu sinplea. Nahi ezkero bideoak, audioak, aurkezpenak ... sar daitezke, baina hori hurrengo batean izan beharko da. Txumablogwit aurreratuan!
Animatu eta publikatzen hasi.
Akatsen bat egin badut barkaidazue, azkar egin dut eta.
Edozein zalantza argitzeko prest, eta baliogarria suertatuko zaizuelakoan, ongi izan.

Txuma Izal (Paz de Ziganda)